


ezagutzen al duzu Donostia?

Txurrutala

Gaur egun desagertua da leku-izan hau. Non zen bada Txurrutala? Txurrutala Egia auzoan kokatzen zen. Leku honetan frantziskotarrek komentu bat egin zuten 1605. urtean. J. Inazio Lasa frantziskotar historialariak ongi agertzen digu honen sorrerari dagokion dokumentua. Honela dio, gure hizkuntzara itzulita, Kastillako erdarari idatzitako dokumentu honek: «*Txurrutalako dermioan, Donostia hiriko jurisdikzioa, mila seiehun eta zazpigarren urteko, abenduaren hogei-ta zazpigarren egunean, ni, Domingo de Urbizu, aipatu hiriko eskribaua, Miguel de Herauso jauna, hiriko alkatea eta Francisco de Urbieta errejido-rea...*».

Ziur aski «*Txurrutal*» («*Txurrutain*» bezala ere agertzen da) leku izena ez zen bakarrik mugatzen komentua sortu zen lekura; pentsatu daiteke izen honekin gaur Atotxa deitzen dugun inguru guztia Tabakaleratik Mirakruz kalera, «*Txurrutal*» izenarekin ezagutzen zela garai haietan.

Urteekin desagertu egin zen San Farantzisko komentua eta bere orubean Miserikordia Etxea eraiki zen 1840. urtean Antonio de Zabaletak utzitako errentziaren bitartez. Gaur oraindik eraikuntza haien zati



Egiako Udal-Biltegiak

batcan Udal-Biltegiak daude, beste zati bat bota zen eta Zuhazti ikastetxea eraiki zen.

JOSU TELLABIDE

Donostiako kantutegia

J.I. ANSORENAK proposatua



Karlos Bosgarrenari

1	2	3	4
Basoko erregea, Karlos bizar gorri, majestade haundia, gaur agur zerorri. Isabelen tronoan nahi badezu jarri, Madrila joan ohi zera ametsetan sarri.	Karlos odolgiroa, zital harritua, zori ordu gaitzean mundura sortua. Errege txantxetako madarikatua, gizatxar mendekari, doilor kaltetsua.	Ezkurrean ametsa du txerri goseak, eta beti Madrilen Karlos erregeak. Arbolari begira dio azcriak: «Heldu gabeak daude, oraindik berdeak».	Karlosen konsejari jakintsu bakarra, abarka obispoa, jeneral azkarra. Eleizaren habea, fedeko indarra, bedeinkazioekin egiten du gerra.

Joandako astean Isabel I. erreginaren omenezko bertsoak azaldu nituen. Honetan Joxe Bizente Etxagarrak bereziak (1773-1855) Radisten enberruak jarritakoak datoz. Hau dena losintxak baziren, hemen astakeria galantak izan dituzte esango merezi ez zaituenik. Baina bien arteko kontrastea nabarmenagoa da. Dena den Donostia beti liberala izan dela argi eta garbi azkeneko balio dute. Hamabi bertso dira, baina hemen denak ezin azaldu. Izanberru oso handi du Karlos Bosgarren Errege deitzen danari, euskaldunak zortzikoa.